

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ASPARRENEKO UDALA

#### **Jendaurrean jartzea tasak arautzen dituzten zenbait zerga ordenantzaren aldaketa**

Udalbatzak, 2020ko ekainaren 4ko ohiko osoko bilkuran, erabaki zuen zerga ordenantza hauek aldatzea:

- Zabor bilketaren tasa arautzen duen zerga ordenantza.
- Etxeak edateko urez hornitzearen tasa arautzen duen zerga ordenantza.
- Edateko uraren arazketa tasa arautzen duen zerga ordenantza.
- Udal jabari publikoaren erabilera pribatuaren edo aprobetxamendu bereziaren tasak arautzen dituen zerga ordenantza (E epigrafea: kale eta plazetan aulki eta mahaia jartzea).

Esandako espedientea jendaurrean egongo da hogeita hamar egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesa duen edozeinek epe horretan hura aztertu eta, hala badagokio, egoki iritzitako erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzan.

Erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, hasieran onetsitako erabakia behin betiko onetsizat joko da.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Araia, 2020ko ekainaren 4a

*Alkatea*

*CONSUELO AUZMENDI JIMÉNEZ*